

azpeitian zer?

133. zenbakia

udal aldizkaria

2010eko Azaroa



Goi mailako
euskara

*Eusko Jaurlaritzak sortutako
Bikain ziurtagiria jaso du Azpeitiko
Udalak, urrezko maila lortuta*

700 urte
azpeitia

zer dio kaleak?

Ba al duzu antzerkira joateko zaletasunik?



Gurutze Eizmendi

“Aurtengo Antzerki Topaketen inguruan atera den liburuxka ez dut asko begiratu egia esan, baina asteburu amateurra dagoela badakit azaroaren 12tik 14ra eta pozgarria da hori, izan ere, herriko emakumeei aukera bat ematen baitzaie. Krisia dela eta ez dela, egitaraua moztu dute, asteburu bat gutxiago izanik. Behar bada pobreago da aurtengo Topaketa baina bueno, Udalak justifikatu du”.



Iñaki Alberdi

“Asko gustatzen zait antzerkia eta gustura joango nintzateke ikustera baina beti zerbait izaten dut egiteko azken unean eta ez dut denborarik izaten azkenean. Etxean jaso dut aurtengo egitaraua eta ikusi dut zer dagoen. Oso ondo dagoela uste dut. Kalean ibiltzen den jendearentzat eta haurrentzat ondo egongo da emanaldi bat kalean izatea, errazago izango dute ikusteko behintzat”.



Ainhoa Otegi

“Gainetik bakarrik ikusi dut aurtengo Euskal Antzerki Topaketetarako Udalak prestatu duen egitaraua, ez dut gehiegi sakondu alegia. Izan ere, normalean ez dut antzerkira asko joateko ohiturarik, baina horrelako ekimenak antolatzea oso ondo dagoela iruditzen zait herriarentzat. Nahiz eta ohiturarik ez izan, ordea, noizean behin joatea gustatzen zait eta agian aurten joango naiz antzezlanen bat ikustera”.



Ion Aranburu

“Nik izaten dut Antzerki Topaketetara joateko ohitura eta nahiko ondo dagoela iruditzen zait aurtengo egitarau. Beste urteetan baino antzezlan gutxiago antolatu dituzte baina orokorrean ondo dagoela pentsatzen dut. Kale-antzerkia bezalako gauza berriak jarri dira eta ondo dago hori, baina ondo egokitutako areto bat beharrezkoa ikusten dut horrelako emanaldiak urte guztian zehar egon daitezen”.

Herritarren eskaerei erantzunez...

Udalak jarritako buzoietan eta azpeitia.net webgunean jasotako iradokizun, proposamen, eta kexei apurka-apurka erantzuten ari da Azpeitiko Udala. Hona hemen horren adibide batzuk.

Iradokizuna

Igerileku atzean hesiak jartzea eskertuko nuke, ibaira erortzeko arriskua baitago.

Erantzuna

Nahiz eta arrisku handia ez ikusi, egokia izango litzateke egurrezko baranda bat jartzea. Hala ere, une honetan ez, aurrera begira baizik.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradokizuna

Zer gertatzen da Loiolako komunarekin? Oso usain txarra egoten da, sartzeko gogorik ez du ematen, oso beharrezkoa bada bakarrik. Egin behar duzuna egin, ukitu gabe eseri eta azkar alde egin, arnasa ere ezin da lasai hartu. Ez al dira ba komun barruak ondo garbitzen? Hau guztia ondo beharrez egiten dut. Mila esker.

Erantzuna

Harritu egiten gara kexa hau jasotzean, lehenbizikoa baita. Hala ere, ahalegintzen gara garbiak mantentzen eta arduradunekin egongo gara. Gaietan egongo gara.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradozkizuna

Noiz konpondu behar dituzue Agirre auzuneko "espaloak"? Gogorazi nahi dizuet, oinezkoentzako ibilbideak oso egoera txarrean daudela, zati batzuetan eskailerak puskatuta, harriak solte daude... Uste dut auzo honetako jendea nahiko haserre dagoela. Mesedez, ez ahaztu Agirre auzunearekin. Eskerrik asko.

Eduene Enparan

Erantzuna

Ez gaude ahaztuta. Baina horrekin batera esan behar da beheko atariko lanak egiteko bertako bizilagunekin adostu behar direla.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradokizuna

Perez Arregi Plazan garai baten gasolindegia txikia zegoen eta kendu zutenetik Lapatz berria bilakatu da, plaza guztia berritu eta gero, penagarria iruditzen zait hori dagoen bezala uztea.

Erantzuna

Garbitzen eta txukuntzen ari dira dagoeneko. Done Jakue (Santiago) kaleko lanak amaitutakoan, dena garbi egongo da, hemendik bi hilabete barru gutxi gorabehera.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradokizuna

Beirarentzat ontzi bat Akamendi etxe inguruan? Beste ontzien ondoan? Eskerrik asko.

Elisabeth Garcia

Erantzuna

Beiraren edukiontzia ez daude gure esku. Udaletxean jasotzen diren eskaerak ECOVIDRIOri luzatzen dizkiogu eta beraiek, duten aurrekontuaren edo libre dituzten edukiontzien arabera denbora gehiago edo gutxiago pasatzen dute eskaerari erantzuten.

Ingurumen saila.

Iradozkizuna

Euskal Herria auzunean haurtzaindegia dagoen etxeetarako garajeen sarrera inguruan bi zabor ontzi zeuden. Hauek lekuz mugitu ziren Euskal Herria 46ko etxe azpi ingurura, eta orain berriz, zebra bide ondoan jarri dituzte. Gauza da haur asko pasatzen dela zebra bide horretatik, eta nahi gabe bertara heltzen dira, edo inguruan jolasten dute. Beraz, uste dut hobeto zeudela hasieran zeuden tokian, edo mugitu ondoren lehenbiziko aldiz jarri zituzten tokian, pare horretan ez baitago zebrabiderik eta ez da jende asko pasatzen den tokia. Gainera orain dauden tokian, aldapa behera geratzen dira eta zaborra jasotzen duten langileek frenoa jartzen ez badiote haize zakarra

ateratzen denean mugitu egin daitezke, eta alboan dauden aparkalekuetako autoak matxuratu. Beraz, uste dut hobe izango dela beste toki batean jartzea, autoak matxuratu ezkeru udalak izan dezakeen gastua handia izan daitekeelako, izan ere, autoak aparkalekuan ongi daude aparkatuta, beraz, ez da autoaren jabe denaren errua izango. Eskerrik asko.

Haurtzaindegira eta Karmelora umeak eramaten dituen gurasoa.

Erantzuna

Zebrabidea jarri zenean leku egokiena bezala ikusi zelako jarri zen bertan, baina berriro begiratuko dugu eta ahal den leku hoberenean jartzen saiatuko gara.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradozkizuna

Basarteko poligono irteeran errotonda baten premia handia ikusten dut. Ezbehar larriren bat pasatu aurretik ezer egiteko asmorik ba al du Azpeitiko udaletxeak? Azkoitiko udaletxeak? Bien artean? Ekin lanari. Basarteko poligonoan lan egiten duen pertsona bat.

Erantzuna

Momentuan ez dago asmorik. Ez da aurreikusten, gaur egun gune horretan dagoen trafikoa asko murriztuko baita bariante berriarekin.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Sartu www.azpeitia.net udal webgunean

- Tramiteak eta ordainketak etxetik.
- Udal albisteak uneoro ezagutzekoa.
- Kexa, iritzi eta iradokizunak plazaratzekoa.
- Plenoetako aktak, udal ordenantzak, hiri antolamenduaren plan orokorra eta beste hainbat dokumentu ofizial kontsultatzekoa.
- Herriaren inguruko informazio erabilgarria eskuratzekoa, ekitaldien agenda eta guzti.
- Sexologia zerbitzua on-line: hileko azken ostiralero sexologoak zuen kezak erantzungo ditu.
- Udal liburutegia: bertako katalogora on-line sartzeko aukera eskaintzen dizu webguneak.

Jarri dute abian Lapatxeko Garbigune berria

Hondakin ugari jasotzeko zentroa zazpi horma-hobiz eta 14 edukiontziz osatzen da



Eizmendi, Ormazabal eta Aranbarri zinta mozteko unean.

eskualdeko bigarren Garbigunea zabaldu dute Azpeitiko Lapatz zabortegian. “Aspaldiko gabezia bati” erantzuna emateko egin den guneak Urola Erdiko zazpi udalerriei (Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Bidegoian, Errezil eta Zestoa) zerbitzua eskainiko die. Garbigune berria hondakin ugari jasotzeko instalazioa da, besteak beste, Plastikoa bereziak, etxetresna elektrikoak eta elektronikoak, hondakin arriskutsuak, obrako hondakinak, etxe-olioa, pilak, egurra, txatarra eta tonerrak.

“Garbigune batek zabortegira joaten den hondakin kopurua nabarmen murrizten du”

“Garbigune batek zabortegira joaten den hondakin kopurua nabarmen murrizten du. Halaber, birziklatzea sustatu eta gure gizartean iraunkortasunaren aldeko kultura txertatzen du”, agertu zuen Julian Eizmendi alkateak urriaren 27an egindako inaugurazio ekitaldian.

Modu honetan, eskualdeko norbanako eta familia guztien eskura dago zerbitzu berria eta mota guztietako hondakinak jaso ahal izateko, zazpi horma-hobi eta 14 edukiontzi ezarri dira bertan. Edukiontzi bakoitza material edo hondakin zehatz bat biltzeko erabiliko da eta honez gain, hondakin arriskutsuei zuzendutako estalitako gune berezia eraiki da. Honela, lekuaren segurtasuna bermatzen da eta bertan uzten diren material arriskutsuek ez diote ingurumenari kalte egingo.

Asier Aranbarri Azkoitiko alkatearen esanetan “aurrerapausoa” eman da Garbigune berriarekin, izan ere, “kalean jasotzen ez diren zaborrei irtenbidea eman ahal zaie orain”. Carlos Ormazabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko diputatuaren arabera, Garbigune berriarekin beste urrats bat ematen da eta Lapatz zabortegia 2013. urte bukaeran itxiko dela aurreratu zuen.

Lapatxeko Garbigunearen eraikitze lanek milioi bat euroko kostua izan dute eta diru kopuru horretatik, 630.000 euro Gipuzkoako Foru Aldundiak jarri ditu. Gainera, Urola Erdiko Lapatz Zabortegiak ordaindu du. Ordutegiari dagokionez, berriz, Urola Erdiko biztanleek behar ez dituzten hondakinak astelehenetik ostiralera 08:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara utzi daitezke bertan eta larunbatetan 8:00etatik 12:30era.

Lankidetzak akordioa sinatu dute Loiola Berrikuntza Fundazioak eta Epsilon Euskadik

Urola Erdia bailarako enpresen lehiakortasuna areagotzea du hitzarmenak helburu nagusi bezala



Villadelprat eta Eizmendi akordioa sinatu ondoren.

Loiola Berrikuntza Fundazioak lehendakari eta Azpeitiko alkate Julian Eizmendik eta Epsilon Euskadi, Berrikuntza Teknologikorako Zentroaren lehendakariak, Joan Villadelpratek lankidetzak hitzarmena sinatu zuten joan den urriaren 19an. Arduradunek “oso interesgarritzat” jo zuten hitzarmena, izan ere, elkarlan honen bidez Urola Erdia bailarako enpresen lehiakortasuna areagotu eta bertako industria sarea hobetzen joateko aukera izango da etorkizunean.

Julian Eizmendik adierazi zuenez, bi erakundeek sinatu duten lankidetzak hitzarmenak hainbat jardura esparru aurreikusten ditu elkarlanerako. “Adibidez, beste bailara eta lurraldeekin

lan egitea, Urola Erdiko enpresak beste zonalde lehiakorrek harremanetan jartzeko; oinarri teknologikoa duten enpresa berrietan partaidetza eta babesak; enpresa ekimenei loturiko adituen batzordeetan parte-hartzea; diagnostikoen garapenean eta proiektu berritzaileetan elkarlana... Honelako akordioak beharrezkoak eskualdea garatu eta hobetzeko, are gehiago gaur egun bizi dugun koiuntura ekonomikoa jasaten ari garenean”.

**“Honelako akordioak
beharrezkoak dira
eskualdea garatu eta
hobetzeko”**

Epsilon Euskadik, berriz, bere egoitza nagusia Araban izan arren, Azkoitiko instalazioak mantentzen jarraitzen du, eta bailarako herriarekin duen harreman berezia nabarmendu nahi izan zuen Villadelpratek: “Epsilon proiektua Urola bailarari esker dago, bertako pertsonak desberdinek guregan izan zuten konfiantzagatik. Horregatik, guretzat ohore bat da proiektu berri honetan parte hartzea. Beti saiatu izan gara pauso bat aurrerago egoten eta hori dela-eta. Loiola Berrikuntza Fundazioarekin lankidetzan ibiliko gara aurrerantzean. Egun pairatzen ari garen bezalako krisi garaietan bultzatu eta borrokatu egin behar da”, adierazi zuen.

Loiola Berrikuntza Fundazioak aurreko martxoan ekin zion bere ibilbideari lankidetzak publiko-pribatuen erreferente izateko eta poliki-poliki abiadura hartzen doa, proiektu ezberdinei heltzen dien heinean. Hain justu, erakundea ekonomia dibertsifikatzeko eta bailaran ekoizten diren produktuak balio erantsiz hornitzeko jaio zen. Iraurgi Lantzen eta Urola Erdiko Industrialdea sozietate publikoek, eta Antzibar, Biele, Corrugados Azpeitia, Grupo Glual, Grupo Sarralle, Ibarria, Juaristi eta Sammic enpresek osatzen dute Fundazioa gaur egun. Era berean, Begoña Beobidek zuzentzen duen Fundazioak laguntzaile dira Deustu eta Mondragon Unibertsitateak, Cidemco Fundazioa, XVIII Mendeko Ikasketen Xabier Maria de Munibe Institutua eta Innobasque.

Inoiz ez delako berandu

Azpeitiko Esperientzia Eskolak 22 ikaslerekin hasi du ikasturte berria



lazko ikastaroetan parte hartu zuten emakumeak diploma erakusten.

erretiratu eta pentsiodunen Baigera elkarteak, Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuak sailak eta Mugabe elkarteak antolatutako Esperientziaren Eskola egitasmoaren laugarren ikasturtea abian jarri zuten azaroaren hasieran. Esperientzia Eskola 50 urtetik gorako pertsona nagusiei zuzendutako formazioko eta gizarte parte-hartzeko proiektua da eta 2010-2011 denboraldian zehar hainbat ikasgai, proiektu eta kultur ekintza desberdinak eskainiko die bertan izena eman duten 22 ikasleei.

“50 urtetik gorako pertsona nagusiei zuzendutako formazioko eta gizarte parte-hartzeko proiektua da”

“Abangoardiazko lan garrantzitsua dugu esku-artean, ahalmena badugu eta lana egin behar da”, adierazi zuen Mugabe elkartearen ordezkari den Maria Jesus Tomasek. Modu honetan, ikasturte berriko ikasleek asteen behin izango dituzte klaseak, asteazkenetan, 16:00etatik 18:00etara bitartean, eta saio hauetan gai eta arlo desberdinei buruz ezagutzeko aukera izango dute.

“Jakin-mina ase bakarrik ez da egin behar, gero jakinduria hori herrira eraman dezakezue”

Erretiroaren ondoren bizitzak jarraitzen duenaren ideia defendatu nahi du

Udalak eta horregatik beharrezkotzat jotzen du Esperientzia Eskolak bezalako ekimenak bultzatzea: “Lana egin izan dugun urteetan ezin izan duguna egin berreskuratu dezakegu. Burua martxan jarri, dinamika jarraitu eta herritar aktibo bihurtu daiteke. Jakin-mina ase bakarrik ez da egin behar, gero jakinduria hori herrira eraman dezakezue. Ikasturte berria oso aberasgarria izan dadila espero dugu”, agertu zuen Ana Mendizabal zinegotziak.

Maria Jesus Arregi, Baigerako kide eta Esperientzia Eskolako ikaslearen ustez “gaur egungo jubilatuek errazago dituzte gauzak, beste dinamika bat dagoelako. Gauza berri eta interesgarri asko ikasten ditugu”.

Azpeitiak, bikaineko euskara



Eusko Jaurlaritzak sortutako ziurtagiria eskuratzen duen lehenbiziko Udala da



azpeitia herri euskalduna dela jakina da eta are gehiago baieztatzen du Bikain ziurtagiria jaso izanak. Ziurtagiri hau Eusko Jaurlaritzak sortu zuen eta Euskalit Fundazioak kudeatzen du eta Euskal Autonomia Erkidegoko esparru sozio-ekonomikoko erakundeek garatutako hizkuntza-normalkuntzako prozesuek izan duten garapen-maila egiaztatzea eta aitortzea du helburu nagusizat.

Bikain ziurtagiriak hiru maila ditu (oinarrizkoa, zilarrezkoa eta urrezkoa) eta Azpeitiko Udalak goi mailakoa eskuratu du. Azterketa 2009 urtean egin zen eta 700 eta 1.000 puntu artean lortu behar ditu erakunde batek Urrezko edo goi mailako Bikain ziurtagiria eskuratu ahal izateko; Azpeitiko Udalarik 800-849ko puntuazioa eman zion talde ebaluatzaileak. Gainera, ziurtagiria erdiesten duen lehenbiziko Udala da Azpeitiko.

Txostenaren emaitzak

Bikain ziurtagiria eskuratu ahal izateko, talde ebaluatzaile batek txosten bat osatzen du erakundearen egoeraren berri jasotzeko. Txosten horretan euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa aztertzen dira eta erakundeari aurrera egiten lagunduko dioten proposamenak egiten dira.

Txostenak hiru atal ditu:

- Erakundearen ikuspegi orokorra: talde ebaluatzailearen iritziz erakundeak dituen indar-gune eta zer hobetu aipagarrienak biltzen dira.
- Erakundearen ikuspegi xehea: EME osatzen duten lau ardatzak oinarri hartuta, horiek banan-banan zenbateraino garatu diren jasotzen da.

- Erakundeak lortutako puntuazioa eta garapen-maila: aurreko guztiak kontuan hartuta, erakundeak euskararen agerpena, erabilera eta kudeaketari dagokionez, lortu duen mailaren berri ematen da.

Ikuspegi orokorrari dagokionez, txostena egin dutenek "Azpeitiko Udalaren garapena altua da, eta hori ezagun du ardatz guztietan", adierazten dute.



Ziurtagiria jaso zuten enpresa eta erakunde guztiak oholtza gainean.



Ardatzez ardatz, jarraian datozenak nabarmendu dituzte:

1. ardatzean -erakundearen irudian eta komunikazioan- Azpeitiko Udalak garapen altua dauka, errokulazio finkoa (kanpokoa zein barrukoa) webguneak (Udalarena eta Euskara Patronatuarena), Azpeitian zer? aldizkaria, zigiluak, aurkezpen-txartelak... edo euskara hutsean daude edo ele bietan. Ele bietan daudenean, euskarari lehentasuna ematen zaio. Hala xedatzen baitute Erabilera Planak eta bertatik eratorritako hizkuntza-irizpideek. Beste horrenbeste gertatzen da, oro har, ekitaldiekin eta herritarrei egiten zaien harrerarekin (telefonoz zein aurrez aurre).

2. ardatzean ere -kanpo harremanetan- Azpeitiko Udalak garapen maila altua dauka. Horrela bada, euskaraz eskatzen duten herritarrei emandako agiriak, doku-

mentuak, zerbitzuak (nahiz eta kontrata baten bidez izan) euskaraz ematen zaizkie, oro har. Hornitzaileekin, gainerako administrazioekin, finantza-erakundeekin ere euskaraz izaten dira ahozko harreman gehienak. Hala ere, komeniko litzateke, azken hauei dagokienez, batetik, solaskide euskaldunak identifikatuta edukitzea; eta bestetik, kontratazioak egiterakoan karatulan nahiz klausuletan bete beharreko hizkuntza irizpideak berariaz adieraztea.

3. ardatzean -barne harremanetan- Azpeitiko Udalak garapen maila ertain-altua dauka. Barruko hizkuntza-paisaia gehiena euskara hutsean daukate, pertsonen kudeaketari edo dagokion idazkiak zein ahozko harremanak euskaraz izaten dira, eta oro har, komunikazio horizontala zein bertikala euskaraz izaten da. Hala ere, hobetzeari begira badira bi arlo nagusi: alde batetik, baliabide informatiko askoren interfazea (ofimatika, batez ere) gaztelaniaz baino ez baitute langileek; eta bestetik, mutuak ematen dituen zerbitzu asko, horiek gaztelaniaz ematen ditu eta.

4. ardatzean ere -hizkuntzaren kudeaketan- erakundeak garapen maila altua du. Izan ere, plan estrategikoak dauzka (Erabilera Plana bera eta EBP) eta plan horiek garatzeko (euskararen

erabilera eta sustapena bultzatzeko), aurrekontuaren baliabide ekonomiko handiak eskaintzeaz gain, Udalak langile-talde handia dauka (15 lagun). Horretaz gain, zinegotziek eta zerbitzaburuek bere egin dituzte planak eta bultzatzaileak izan dira prozesuaren hasieratik.

“Azpeitiko Udalak oso urrats onak eman ditu eta bide horretan jarraitzea espero dugu”

“Arestian aipatutako guztiagatik, gure ustez Azpeitiko Udalak oso urrats onak eman ditu eta bide horretan jarraitzea espero dugu”, gaineratzen du txostenak.

Banaketa ekitaldia

Ebaluazioa 2009an egin zen arren, Bikain ziurtagirien banaketa ekitaldia azaroaren 10ean burutu zen Donostiako Kursaal Jauregian. Azpeitiko Udalarekin batera, beste 43 enpresa eta erakunde jaso zuten ziurtagiria; 19k goi-mailako urrezko Bikain lortu dute, 14k tartekoa den zilarrezkoa eta gainontzeko 11k oinarritzkoa. Julian Eizmendi alkatea igo zen oholtzara saria jasotzeko eta Ana Mendizabal zinegotzia eta Euskara Patronatuko zuzendaria Patxi Saez ere bertan izan ziren.

Zerga gehienek %1,8ko igoera izango dute 2011n

Zaborra %10,34 igoko da eta urak, berriz, kontsumoaren arabera gorakada izango du



2011 urtean sartzearekin bat, zerga berriak izango dira Azpeitian. Azaroaren 4an egindako Udalabaltzak aho-batez erabaki zuenez, zerga, tasa eta prezio publiko gehienak Kontsumorako Prezioen Indizea (KPI) igoko dira. Horrela, 2011rako tarifa eta prezio desberdinek 1,8ko igoera izango dute. Bi salbuespen izango dira ordea, neurri honetan; zaborra eta ura.

Gainera tasa berri bat jarri da telefonia mugikorreko enpresei zuzenduta.

“Azkenengo bi urtetan udalaren diru sarrerak nabarmen jaitsi dira”

“Azkenengo bi urtetan udalaren diru sarrerak nabarmen jaitsi dira, batez

ere Foru Aldunditik jasotzen dugun Udal fondo foralaren kopurua. Sarrera honek udal sarrera arruntan erdia suposatzen du. Adibidez, 2009an jasotako kopurua 2007koa baino %18a txikiagoa izan zen. Bukatzeko, azpimarratu ordenantza fiskalen aldaketak onartzeko erabakia aho batekoa izan dela”, adierazi nahi du Julian Eizmendi alkateak.



Zaborra

Tasa honek jasango duen igoera % 10,34koa izango da. Aurten 88,60 euro ordaindu da urteko kuota eta datorren urtean 97,76 euro ordaindu beharko dira, hau da, urtean 9,16 euro gehiago ordaindu beharko dira. “Kontuan hartu behar da, zerbitzu honengatik Udalak dituen kostuak nabarmen igoko direla datorren urtean. Adibidez, zabor isurketaren zerbitzuak %19ko igoera izango du. Tasaren igoerarekin zerbitzu honek Udalari suposatzen dion gastu eta sarreraren arteko aldea portzentajearen berdindu egingo da 2010ekora (%29,72ko defizita), naiz eta horrek esan nahi datorren urtean 36.000 € tan handituko dela zuloa”, azaldu du Eizmendik.

2010erako espero den zaborragatiko gastu eta sarreraren aldea:

-382.703 € %29,72

2011rako aurreikusi den zaborragatiko gastu eta sarreraren aldea:

- 418.814 € %29,72

Bestalde, orain gutxi arte Foru Aldundiak konpostaje zerbitzuaren zati handi bat ordaintzen zuen, baina aurrerantzean Udalak bere kargu egin beharko du koste guztia eta ondorioz, hondakin organikoak konpostatzen parte hartzen zuten familien hobaria kendu egingo da.



Ura

Uraren tasari dagokionez, tasak igoera progresiboa izango du, kontsumoaren arabera. Abonu kuota finkoa KPla igoko da, hau da %1,8a, eta kontsumitutako m3-koaren prezioa %6,25a. Bestalde, estolderiaren tasa zentimo bat igoko da. Igoera honek %5,90 suposatzen du.


Hau horrela izanda, hona hemen etxe erabileran kontsumitutakoaren arabera zenbat igoko den ur eta estolderiaren hiruhileko errezihoan:

Kontsumoa- m3	2010ean	2011an	Aldea	Aldea %
0	29,16	29,69	0,53	1,82%
10	32,59	33,33	0,74	2,27%
20	36,02	36,96	0,94	2,61%
30	39,44	40,60	1,16	2,94%
40	52,92	54,93	2,01	3,80%
50	66,39	69,25	2,86	4,31%
60	83,64	87,58	3,94	4,71%
70	100,89	105,90	5,01	4,97%
80	118,14	124,23	6,09	5,15%
90	135,40	142,55	7,15	5,28%
100	156,32	164,76	8,44	5,40%

Gauzak horrela, ez duenak ezer kontsumitzen 0,53 euro gehiago ordainduko ditu hiruhilabetekoan jasotzen den ordainagirian. Era berean, 10 metro kubiko kontsumitzen duenak %2,27ko igoera izango du, hau da 0,74 euro hiruhileko errezihoan. 30 metro kubiko kontsumitzen duenak %2,94ko igoera jasango du, 1,16 euro gehiago ordainagirian. 50 metro kubiko kontsumitzen duenak %4,31ko igoera izango du, 2,86 euro gehiago. Kontuan izan behar da abonatuaren %85ak 50 metro kubiko baino gutxiago kontsumitzen dutela.

“Kasu honetan, ur eta estolderia tasa hauen igoerarekin zerbitzu hauek Udalari suposatzen dioten gastu eta sarreraren arteko aldea, termino absolutuetan, mantentzen ahalegindu gara. Hori izanda gure helburua: 2010 urtean gastuen eta sarreraren arteko zuloa -691.919 eurokoa espero da, sarrerak gastuaren %67,35a suposatzen dute, eta 2011rako egiten den igoerarekin zuloa -675.391 eurokoa izango da, sarrerak gastuaren %68,71a suposatzea espero da”, esan du alkateak.

Bestalde, zerga berri bat ezartzea onartu du Udalbatzak. “Telefonia mugikorraren zerbitzuak ematen dituzten enpresek udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatik tasa bat ordaindu beharko dute datorren urtetik aurrera”, argitu du Eizmendik.



e txebizita eta auzuneen birgaitze energetiko iraunkorra: alternatiba teknologikoak eta aukera berriak da Ingurugiro Etxea Fundazioak azaroaren 25erako antolatu duen jardunaldiaren gaia. Arrupe hotelean egingo den ekimena 9:00etan hasiko da akreditazioen banaketarekin eta jarraian, EAEko etxebizitza birgaitzeekiko legislazioa eta politika agertuko da. 10:30ean German Camposek *Inguratzailearen birgaitze integrala: erronka eta aukerak* hitzaldia eskainiko du. Kafea hartzeko denboraren ondoren, *Energia sorkuntza berriztagarria eraikinentzat aukera teknikoak eta bideragarritasunaz* hitz egingo du Fn Energiako Luis Maria Sanchezek. 12:30ean Tecnaliako Sergio Saizek *Administrazio publikoaren papera birgaitze energetiko iraunkorraren sustamenean: zerbitzu energetikoak eskaini al ditzakete udalek herritarrei? Visasaren proiektuen azterketa sakona* esplikatu du eta jardunaldiarekin amaitzeko, 14:00etan alternatiba baliagarriei buruzko mahai-ingurua egingo da. Parte hartu nahi dutenek azaroaren 18rako eman behar dute izena 943 151713 telefono zenbakian edota ingurugiroetxeafundazioa@azpeitia.net helbide elektronikoan.

Gaztelekua abian da berriro

gazteleku berriak atek zabaldu ditu. Orain arte Damaso auzoan kokatzen zen zerbitzua Izarraitz pilotalekuko lehen solairura igaro dute eta festa batekin inauguratu zuten urriaren 12an zerbitzu berria. “Azken urteetan gazteek herriaren kanpoaldean geratzen zela eta erdigunera ekartzeko eskaerak egiten hasiak ziren”, argitu dute Gaztelekuko hezitzaileek. Hori dela-eta, Izarraitz pilotalekuan egokitu dute gune berria eta sarrera parke estaliaren goialdetik izango du. Modu honetan, 12 eta 17 urte bitarteko nerabeei zuzendutako Gaztelekua txoko desberdinetan banatuta dago; lagunen txokoa (sofak), ordenagailu txokoa, jolasen txokoa, makillaje eta ile-apaindegi txokoa, sukaldea, tailerra edota ikasgela eta musika eta dantza gela. Era berean, irteerak, txapelketak, ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak edota sexologia zerbitzua ere eskaintzen jarraituko da. Gaztelekuko instalazio berriak ikusi edota erabili nahi dituzten nerabeei asteartetik larunbatera 17:00etatik 20:00etara bitartean egin dezakete.

Kudeaketa Plana aurkeztuta



Maria Jesus Aranburu diputatua Azpeitiko kultura eta euskara eragileekin bildu zen

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara diputatua Maria Jesus Aranburuk azken 3 urteetan landutako Kudeaketa Planaren berri eman zuen Azpeitian urriaren 20an burututako bileran. Hitzorduan herriko kultura eta euskara mailako eragile desberdinek hartu zuten parte eta beraien kezka eta proposamenak egiteko aukera izan zuten. Horien artean errepide sarea edota garraio publikoa izan zituzten hizpide. Kezkarik handiena sortu zuen gaia errepide sarearena izan zen. Herriar baten iritziz, “bailaran egiten diren inbertsioak hutsaren parekoak dira. Elgoibarrek, Zumarragak, Tolosak eta Zarautzek osatzen duten sarearen erdian gaude gu, Gipuzkoako errepide sare nagusietara gerturatzeko loturarik gabe”. Era berean, garraio publikoaren zerbitzua indartzeko dagoen beharra azpimarratu zen eta Aranburuk bailara N1 errepidearekin lotzeko aurre-proiektua martxan dela erantzun zuen. “Azpeitia eta Azkoitia arteko saihezbidea egingo da eta, hori amaituta, Zumarragarekin lotura gauzatuko da. Lan horiek noiz exekutatu diren ezin dizuet argitu, baina aurreratu dezaket proiektua gauzatzeko 2011ko aurrekontuetan diru partida bideratu dela”.

Kizkitza Gurrutxagari harrera



Azpeitiarrak Espainiako doktoretza-tesi onenaren saria jaso du

azpeitiko Udalak harrera egin zion joan den azaroaren 5ean Kizkitza Gurrutxagari, Urrestillako fisikariak altzairuaren alorrean egindako Estatu mailako tesi onenaren saria jaso baitzuen urriaren 20an, Madrilan. “Herri honek ikastun, ikerlari eta berritzaile asko behar ditu eta Administrazioak bultzatu egin behar ditu, ateratzen diren pertsonak bertan lana garatu dezaten, eta kapital humano aberatsa izaten saiatu behar gara. Beharrezkoa da bizi dugun krisi koiuntura honi aurre egiteko, gizartearen garapenean eta bizi kalitatean aurrera egiteko eta etorkizunean ere aurrera egiteko”, agertu zuen Julian Eizmendi alkateak eta eredu bezala hartu behar dela nabarmendu zuen: “Gaur egun eredu asko izaten ditu gazteriak eta ea zure modukoak ere jarraitzen dituzten”, gaineratu zuen. Kizkitza Gurrutxagak saria eta errekonozimendua eskertu zuen eta ekitaldiarekin amaitzeko, alkateak eta Nerea Alday Hezkuntza saileko zinegotziak Azpeitiko armarrria irudikatzen duen oroigarria eman zioten “herriaren izenean”.

Bost talde berri izango dira 2011ko Danborradan

Udala eta danbor-taldeak aldaketen aurrean irtenbidea adosten ari dira.



azpeitiko Udalak martxoan zabaldu zuen 2011ko San Sebastian festetan parte hartu nahi zuten danbor-talde berriek izena eman zezaten. Guztira, bost talde aurkeztu ziren eta Festa Batzordeak guztiak onartu zituen. “Udal ordenantzak horrela ikusten zuenez ireki zen deialdia eta aurkeztutako bost taldeak onartu ziren. Honela, lehengo 21 taldeei, Loiola Bide Zahar, Loiolatxo, Zulo Zabal, Ollagorria eta Oñatz gehitu zaizkie, azken hau, gastadoreen taldea izango delarik”, adierazi du Festa batzordeburu den Jaber Altunak.

“Aterabide onena emateko, beti ere elkarlanean ari gara”

Bost talde berriak sartzeak, Danborradak nahi eta nahieko aldaketak izango dituela suposatzen du, baina Udala eta taldeak ahalik eta irtenbide egokiena bilatzen ari dira: “Hainbat aldaketa izan ditu Danborradak sortu zenetik eta oraingo egoerak beste batzuk egitera behartzen gaitu. Horrela onartu behar da eta behar bada, ez genioke beldur handiegirik izan behar. Udalak eta danbor-taldeen hiru bilera egin ditugu eta saiakera egiten ari gara proposamenak aztertu eta aterabide onena emateko, beti ere elkarlanean”, agertu du Altunak. Behin betiko aldaketak zehaztutakoan herritarrei jakinaraziko zaizkiela aurreratu du Festa batzordeburuak.

Karroza lehiaketa zabaldu da



San Sebastian eguneko haurren danborradako karroza diseinatze eta egiteko lehiaketa antolatu du. Aurtengo karroza egiteko gaiak, Julian Barrenetxea hil zeneko 50.urteurrena, 1961-2011 eta Julian Barrenetxea Abesbatzaren 25.urteurrena, 1986-2011 dira. Txapelketan nahi duten pertsona eta talde guztiek parte hartu dezakete eta bakoitzak nahi duen teknika eta materiala erabiltzeko aukera izango du. Hori bai, proiektu guztiek originalak izan beharko dira eta karrozaren neurriak ondorengoak izango dira: 2,80 metroko zabalera x 3,85 metroko luzera eta 3,20 metroko altuera. Aurreproiektuak aurkezteko epea azaroaren 30era arte egongo da irekita udaletxean (Udala 'Festa Batzordea' Enparantza Nagusia, 5. 20730 Azpeitia helbidean). Azpeitiko Udalak proiektu bakarra aukeratuko du lehiaketara aurkeztutako guztien artean eta egileak 1.500 euroko saria eskuratuko du. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak udaletxeko Kultura saile-ra edo www.azpeitia.net webgunera jo dezake.

Azpeitiko Udala emakumeenganako indarkeriaren aurka

Azaroaren 25eko egunaren bueltan, puntu lila ezarriko da eraikin publiko guztietan



emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna ospatuko da datorren azaroaren 25ean, eta egun berezi honen bueltan, eta ekimenarekin bat eginez, ekintza desberdinak bultzatuko ditu Azpeitiko Udalak.

Modu honetan, Berdinsarean sartu da Azpeitia. Berdinsarea Euskadiko Udalen Elkarteak eratu du Tokiko Gobernuei lanabesak emateko asmoarekin eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzeko bidean, Berdintasunaren alde eta Indarkeriaren kontra dagoen Euskal Udalen Sarea sustatzeko.

Era berean, Berdinsareak bultzatutako Beldur barik! kanpaina sustatuko du. “‘Beldur barik’ esateak beldurra emakumeen kontrol estrategia gisa ukatzen baitu. Era berean, kontuan hartuta emakume izatea arrisku potentziala dela, ‘Beldur barik’ esateak aitortzen du Udal honek aukera eman behar duela emakumeak zenbait tresnaz jabetzeko, gaitz hori prebenitzeko eta nork bere burua defendatzeko. Borondate hori gure udalerrietako exijentzia inperatibo bihurtu beharko litzateke”, dio kanpainak.

“‘Beldur barik’ esateak beldurra emakumeen kontrol estrategia gisa ukatzen baitu.”

Aurreko urteetako ohiturari jarraituz, emakumeenganako indarkeriaren aurkako sinboloa den puntu lila banatuko du herrian, batetik, Azpeitia zer? aldizkari honekin batera etxe bakoitzera bat iritsiko da eta bestetik, herriko eraikin publiko guztietan ezarriko da eta www.azpeitia.net webgunetik jaisteko aukera izango da.

Azkenik, Udalak herritarrak animatu nahi ditu, oso modu berezian herriko neska-mutilak, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta egingo diren ekintzetan parte hartzera eta indarkeria horren aurka modu publikoan agertzera.

udal erabakiak

Azaroaren 4ean Udalbatza osoak egindako bilkuran hartu ziren erabakiak honako hauek izan ziren:

- 1.- 2010eko urriaren 7an egindako bilkuren akta onartzea.
- 2.- 2011. ekitaldirako zerga agintarauen aldaketa onartzea.
- 3.- Azpeitiko Arau Osagarrien Berrazterketan “Landeta” 28.8 Hirigintza Iharduera Eremurako Xehetasunezko azterlana onartzea behin betiko izaeraz..

Mozioak

- 4.- Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna.
- 5.- Memoriaren eguna ospatzeko erakundeen arteko akordioa.
- 6.- Galdera eta erreguak.

AZAROA

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					



16. asteartea

XXVIII. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK
ESKOLA ANTZERKI TOPAKETAK
Zumaiaiko MARIA ETA JOSE ikastetxea "NI EZ
NAIZ TXOTXOLO."
11:00etan
Lekua: Izarraitz Pilotalekuan

ESKOLA ANTZERKI TOPAKETAK
Donostiako ZURRIOLA ikastetxea
"IHOLDI ETA II RISTORANTE"
15:30ean
Lekua: Izarraitz Pilotalekuan

17. asteazkena

XXVIII. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK
ESKOLA ANTZERKI TOPAKETAK
Bilboko KIRIKIÑO ikastola "MAMMA MIA eta
HOLLYWOODEKO IZARRAK"
11:00etan
Lekua: Izarraitz Pilotalekuan

ESKOLA ANTZERKI TOPAKETAK
LASARTEORIAKOLANDABERRI "BIRZIKLEAT
UTXIKLE-CLOWN eta "ON KIXOTE"
15:30ean
Lekua: Izarraitz Pilotalekuan

18. osteguna

XXVIII. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK
POLTXIKOKO ANTZERKI EMANALDIAK
HORTZAKA TALDEA "KALE EDO BALE?"
Kafe garaian-gaueko 21:30ean
Gaztetxean

19. ostirala

XXVIII. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK
LE PETIT THÉÂTRE DE PAIN eta ARTEDRAMA
"ERRAUTSAK"
21:30ean
Lekua: Izarraitz Pilotalekuan

ZINE KLUBA
Filmea: Welcome
21:30ean
Lekua: Betharram Aretoan

20. larunbata

LAGUN ONAK M.B.
Moncayo

XXVIII. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK
ZTP "DEMODE QUARTET"
21:30ean
Lekua: Izarraitz Pilotalekuan

21. igandea

UDALEKO GAZTERI SAILAK antolatuturik:
TXIKI BIRAN programa
12:30ean
Lekua: Urrestillan
LAGUN ONAK M.B.
Moncayo

XXVIII. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK
AMAIERAKO JAIA-KALE ANTZERKIA
EN LA LONA "EXODO"
18:00etan
Herriko kaleetan-Plaza Nagusian

ESTRENALDI BEREZIA-HELDUEN ANTZERKIA

OIHULARI KLOWN "XAKE"
19:30ean
Lekua: Izarraitz Pilotalekuan

22. astelehena

IPUIN KONTALARIA: LUPE LEKUONA
Haurrentzako ipuinak- 6 urteko haurrentzat
18:00etan
Lekua: Udal Liburutegia

26. ostirala

KILOMETROAK 2011 AURKEZPENEA
Lekua: Izarraitz Pilotalekuan

27. larunbata

700. urteurrena
Azpeitiari itzulia mugarik-muga 700 urte bete-
tzean. Oinezko bira, IBARBIA Auzoa-LASAO
08:00etan
Plaza Nagusitik

DVD EMANALDIA

17:00etan
Lekua: Betharram

UDAL MUSIKA BANDA

Pasakailea
Ordua: 18:00etan
Kontzertua pasakallea amaitu ondoren
Afaría (Santa Zezilia)

28. igandea

LAGUN ONAK M.B.
Mendukiloko kobak- Uraren bidexka

DVD EMANALDIA

17:00etan
Lekua: Betharram

29. astelehena

IPUIN KONTALARIA: MIRIAM MENDOZA
Ekintza: Haurrentzako ipuinak- 5 urteko
haurrentzako
18:00etan
Lekua: Liburutegia

botikatzandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Azaroaren 1, 5, 11 eta 23.

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Azaroaren 9, 16, 17, 18, 19, 20 eta 21.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Azaroaren 2, 6, 7, 10, 22, 27 eta 28

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Azaroaren 3, 12 eta 24

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Azaroaren 4, 8, 13, 14, 25 eta 29

